



# GAUTENA

Gipuzkoako autismo elkarte

 2020ko Jardueren Memoria



GAUTENA



AURKIBIDEA

2020

<b>1. AURKEZPENA</b>	<b>4</b>
<b>2. GURE ERAKUNDEA</b>	<b>6</b>
<b>3. ZERBITZUAK</b>	<b>8</b>
3.1. DIAGNOSTIKO ETA TRATAMENDU ZERBITZUA	8
3.2. HEZKUNTZA ZERBITZUA	12
3.3. EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA	16
3.4. ETXEBIZITZA ZERBITZUA	20
3.5. FAMILIENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA ETA ELKARTE EKINTZAK	24
<b>4. 2020KO EKINTZAK</b>	<b>28</b>
<b>5. URTEKO KONTUAK</b>	<b>38</b>
5.1. EMAITZEN KONTUAK	38
5.2. EGOERAREN BALANTZEA	39
<b>6. FINANTZATZAILEAK</b>	<b>40</b>



## AURKEZPENA

Lagun agurgarriak,

lazko memoriaren aurkezpenean adierazi genuenez, pandemia batean murgilduta geunden zeinaren eragina oraindik ezezaguna zen guretzat. Urtebete igaro da eta, mehatxua oraindik gainean dugula, baina itxaropen gehiagorekin, lerro hauei ekin nahi diegu zoritxarrez birus honen eragina jasan duten familiak gogora ekarri.

Pandemiak errotik nahastu ditu gure bizitzak eta gure familienak eta agertoki berri batean kokatu gaitu. Lan egiteko, elkarrekin bizitzeko eta aurrera egiteko modu berriak birdefinitu behar izan ditugu.

Aurrera jarraitzea izan da, une bakoitzak ahalbidetzen zuen moduan, elkartearen erabateko ahalegina urte osoan zehar. Etxebizitza bezalako zerbitzuarekin aurrera jarraitzea funtsezko izan da, ziurgabetasun handieneko uneetan ere irekita mantendu dena, edo aurrera jarraitzea, distantzian bada ere, hezkuntza eta zerbitzu klinikoa bezalako zerbitzuekin. Aurrez aurreko arreta berreskuratu ahal izan zenean, eguneko arreta zerbitzuari edota aisialdiko programari ekin genien, hainbeste asteko isolamenduaren ondoren hain beharrezkoak zirenak AEN duten pertsonentzat eta haien familientzat,

Bizi izan dugun urte konplexu honetan, lehenik eta behin, AEN duten pertsonen eman duguten egokitzapen-, baikortasun- eta indar-lezioa nabarmendu behar dugu.

Era berean, sakonki balioesten dugu erakundeko profesionalen eta familien aparteko ahalegina eta konpromisoa. Ahalegin eta konpromiso horiek, historikoki gure elkartearen funtsezko balioak badira ere, egoera honetan AEN duten pertsonen eta haien familien bizikalitatearen alde lanean jarraitu ahal izateko ezinbesteko zutabeak izan dira.

Ezin dugu ahaztu administrazioen zeregina; izan ere, egoerak ahalbidetu duen neurrian, sentiberak eta laguntzaileak izan dira gure beharrekin.

Oraingo honetan aurkezten dugun memorian, une konplexuetan egindako jarduerak, ekimenak eta mugarriak jasotzen ditugu; guztiak ilusioz, gure pertsonetikiko konpromisoaz, indarrak eta elkarlaneko espirituaz beteak. Ilusio, konpromiso, kemen eta lankidetzaren horregatik, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu AEN duten pertsonen, baita profesionalen, familien, administrazioari eta gizarteari ere.

**“Sakonki balioesten dugu erakundeko profesionalen eta familien aparteko ahalegina eta konpromisoa. Ahalegin eta konpromiso horiek, historikoki gure elkartearen funtsezko balioak badira ere, egoera honetan AEN duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatearen alde lanean jarraitu ahal izateko ezinbesteko zutabeak izan dira.”**

Memoria hau idazten ari garen unean Covid-19aren aurkako txertaketa-prozesua erritmoa hartzen hasi da. Horrek aurrerapauso esanguratsua suposatu beharko luke pandemiak ukatu zigun normaltasunerantz. Dena den, solidaritateak eta AEN duten pertsonen esku-bideen defentsak gure elkartearen ardatz nagusiak izaten jarraitu behar dute, testuingurua edozein dela ere.

## **Batzar Orokorra**

## **Batzar Orokorra**

### **Presidentea**

Juan Cid Pardo

### **Presidente orde**

Juan Félix Palacios Santamaria

### **Idazkaria**

Blanca Aranguren Achótegui

### **Diruzaina**

Patxi Agirre Arrizabalaga

### **Batzordekideak:**

Javier Orús Iturralde

Juan Carlos Etxepeteleku Mindegia

Gema Aramburu Lasquibar

Karmele Sarasola Aguirregomezcorta

Lourdes Lluis Panella

Francisco Javier García Perez

José Arrizabalaga Lasa

Javier Herranz González

M. José Isturiz Aguinaga

Susana López Arzac

Marcos Pablo Curto




# GURE ERAKUNDEA


## Datu orokorrak




## Zerbitzuak eta onuradunak



## Datu ekonomikoak



## Sare sozialak





## COVID-19k GAUTENAn izan duen eraginari buruzko azterlana

GAUTENAK azterlan bat egin du, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eta Arrate Maestu Gómez buru dela, osasun-krisiak artatutako pertsonengan, haien senideengan eta erakundeko profesionalengan izan duen eragina ezagutzeko.

Informazio-iturriak		
	Inkesta Profesionalei	Inkesta Familiei
Hezkuntza	34	35
Eguneko arreta	12	16
Etxebizitza	24	27
<b>GUZTIRA</b>	<b>70</b>	<b>78</b>

**Pandemiak eragindako krisia kudeatzeko oztopo handienetako bat izan da desgaitasuna duten pertsonen zuzendutako zerbitzuak arautzen dituzten erakundeek ez dutela adostasunik lortu araudiari dagokionez.**

### Ondorio nagusiak

✓ Zerbitzuak etetea oztopo handia suposatu du GAUTENAn artatutako pertsonen garapenerako eta esku-hartzerako.

Aurrez aurreko esku-hartzea bezalakorik ez dago. ✓

✓ Hainbeste hilabeteren ondoren, hasieratik lehen lerroan aritu diren profesionalak nekea igartzen dute.

✓ AEN duten pertsonen egokitzapen-gaitasun handia erakutsi dute.

✓ Familiak eskertuta daude profesionalen lanarekin.

Gizarteratzea kaltetu zuzena izan da. ✓

✓ Itxialdian ibilaldi terapeutikoak egiteko baimena izatea ezinbestekoa izan da.

GAUTENAKo esku-hartze eredua eraginkorra izan da kutsadurak prebenitzeko. ✓



## Diagnostikoa eta Tratamendua

Estreintatu berria genuen Ebaluazio Diagnostikoaren formatua (2019ko urrian jarri genuen abian) mantenduz ekin genion 2020. urteari, prozesu horretarako itzarote-zerrenda laburtzea helburu zela. Proba diagnostikoak orain egun bakarrean egiten dituzte taldeko hainbat kidek, eta horrek objektibotasuna eta fidagarritasuna indartzen ditu.

Hala berean, GAUTENARA oraintsu heldu diren familientzako prestakuntza-programa berrantolatuaren ibilbideari ere ekin genion. Horren helburua da diagnostia onartzeko prozesuan bidelagun izatea, eta informazioa eskaintzea AENari buruz, horren inguruan esku hartzeari buruz eta erakundeari berari buruz.

- *Familian oinarritutako ikuspegi batekin lan egiteak aukera eman digu, familiei gida batzuk emanez, beraien seme-alaben garapena etxean sustatu ahal izatea.*




### Esku-hartze telematikoa

COVID-19aren osasun-krisiak, ordea, esku hartzeko darabilgun estiloa berregitera behartu gaitu. Gure ikuspegia familian ardaztua da, eta eguneroko lana ikuspegi horretan oinarritzen dugu. Hala, hori aintzat hartuta, eta adin txikikoarekin eta haren familiarekin aurrez aurreko lana egin ezinik, zenbait hilabetez gure lana familiei lanabesak ematea izan da, beraien seme-alaben garapena sustatu zezaten.

Ohikoa bihurtu da online esku hartzea, eta, zenbait esku-hartze plan ordura arte ez bezalako helburuekin diseinatzeaz gain (esku-garbiketa, gel hidroalkoholikoa nola erabili, musukoen erabilpena, etxean gelditzea, errutina berriak lantzea eta abar), lantaldeko profesionalak esku-hartze telematiko horietan trebatu ziren eta beste zerbitzu batzuetako lankideekin informazio-trukean aritu ziren.



566  
artatutako  
pertsona



Hala egin nahi izan duten guraso-taldeek bilerak egiten jarraitu dute, hamabostean behin eta modu telematikoan.

Itxialdian, jarraipenari eta esku-hartzei telematikoki eutsi ahal izan diegu, baina diagnosiak aldi baterako eten egin behar izan ditugu.

Itxialdia amaituta, aurrez aurreko esku-hartze individualak egitera itzuli gara pixkanaka. Aldi batez, helduen eta/edo gurasoen saioetan

tartekatu egin dira aurrez aurrekoak eta esku-hartze telematikoak, bideoen eta grabazioen laguntzarekin. Nolabaiteko normaltasunera itzuli ahala, haurren eta talde txikietako aurrez aurreko saioei ekin zaie berriro.

Diagnostikoei dagokienez, ebaluazio-prozesuari ekin diogu berriro familiek egindako zenbait grabazioen bitartez; baina ia berehala, ebatzi da adin txikikoek etorri egin behar zutela balorazio-saioetara.



## Diagnostikoa eta Tratamendua

### Etxeko esku-hartzea

Bakanki, ebaluazioak eta esku-hartzeak etxean bertan edo aire libreko inguruetan egin dira, hala komeni zela iritzi izan denean. Hartara, ikusi ahal izan dugu adin txikikoaren eta haren familiaren ingurune naturalean lan egiteak dituen abantailak dituela, gure esku-hartzea uztartuz familian ardatz duen ikuspegiaren oinarritzko osagaiekin.



### Kokalekua aldatzea

Bestalde, gure jarduera profesionala erakundearen Aieteko egoitzatik Donostiako Igara auzoan dugun kokaleku berrira pasatu dugu urteko azken hiruhilekoan, Aieteko egoitza eraberritzeko lanak hasi baitira.

Harrezkero, beste profesional bat ari da lanean harreran; beste egiteko batzuen artean, hark jasotzen ditu deiak, artatzen ditu familiak, eta COVID-19arekin ez kutsatzeko prebentzio-neurriak betetzeaz arduratzen da.



Profesional taldearen egungo kokalekua.

**Lantaldea  
Donostiako Igara  
auzoko CEMEI  
eraikinean jarraituko  
du Aieteko egoitzako  
lanak amaitu arte.**



## **Nabarmentzekoa da familien gainditzeko gaitasuna 2020a bezalako urte zail honetan.**

### Prestakuntza

Itxialdi-asteetan prestakuntza-eskaintza handia egon denez, profesionalek hainbat prestakuntza egin ahal izan dituzte eta interesa duten familiekin partekatu.

Hainbat astez konfinatuta egon ondoren, eta ziurgabetasunez betetako egunen aurrean, zerbitzuko profesionalek bi laguntza-gida landu dituzte familiei orientabideak eskainiz; eta saio telematiko banatan sakondu dira haiek.

Lehenaren izenburua Nola egin aurre konfinamendu-neurrien arintzeari? zen; eta bigarrenarena Gure semeak/alabak ez du etxetik irten nahi.

### Praktiketako ikasleak

Gutziz desberdina izan bada ere urtea, zenbait unibertsitatetako masterreko eta graduko ikasleak hartzen jarraitu dugu, baina, eskabideak gehitu direla eta, ezinezkoa izaten da nahi duten eskatzaile guztiei praktikak egiteko aukera eskaintzea.






# ZERBITZUAK



## Hezkuntza

Nola ez, Covid-19ak eragindako osasun-egoerak goitik behera markatu ditu 2019/2020ko eta 2020/2021eko ikasturteak, hark baldintzatu baitu eskolatzeko atipiko baten eguneroko bizimodua.

20 gela  
egonkor



- *Familiarekin egin dugun esku-hartzeak, batez ere, ikaslearen egoera emozionalaren jarraipena egitea izan du helburu, haien bizitzan aldaketa hain bortitza dela eta gerta daitezkeen erregulazio-arazoei aurrea egiteko.*

Normal ekin genion lehen hiruhilekoari; baina aurrez aurreko hezkuntza-zerbitzua eten zenetik, hau da, 2020ko martxoaren 13tik aurrera, gure esku-hartze osoa berregin behar izan genuen. Handik aurrera, gure helburu nagusia izan da familiarekiko eta ikaslearekiko komunikazioan lan egitea, abagune bakoitzean egokituz eskueran genituen lanabesak eta eskain genezakeen laguntasuna.

Irailera arte, urrutiko jarduerara egon da mugatuta laguntza-esparrua, guztiz; horregatik, ikaslearen egoera emozionalaren jarraipena egitea izan dute helburutzat bidelaguntza-estrategiek, nagusiki, ahal den neurrian saihestu ahal izateko haien bizimoduan horren aldaketa latzak izan ditzaketan desorekak.

Familietik lanari dagokionez, eguneroko bizimodua etxean berregituratzeko eta osatzeko egokiak izango zitzaizkien estrategiak eskaini nahi izan dizkiegu; esate baterako jarduketak eta errutinak egituratzea, estrapola zitezkeen lanak, jarduketak, ikasgelako

errutinetatik etxeko errutina berrietarako trantsizioa, etab. Aste Santuko oporraldia amaitu zenean eta itxialdia luzatu egiten zela ikusita, galdera egin genien familiei erabilitako jarraipen-estrategien inguruan, hobekuntzak identifikatu ahal izateko.

## Gelak berriro irekitzea

Ekainaren 1ean egoera malgutu egin zen, eta Hezkuntza Sailak agindu zuen profesionalak lantokira itzul zitezela, aurrez aurreko lanera. Une hartan ikasgelak genituen 19 ikastetxeetatik 11k atea ireki zituzten profesionalentzat, prebentzio-neurri egokiak hartu ondoren.

Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzaren argi berdea jaso ondoren, hezkuntza-zerbitzuari berrekin zitzaion ekainaren 15etik hil horretako 19ra arte. Irekiera hori mugatu egin zuten bai hartarako zeuden baldintzek, bai oporraldiaren hurbiltasunak.



Donostiako La Salle Loiolako gela egonkorra Arte eta Giza Eskubideak, Haur eta Gazteen 16. ekitaldiaren irabazlea da. Sari ofiziala eta publikoaren saria lortu dute **"MUGARIK GABEKO BIDEAK"** muralarekin 16-18 urteko kategorian.

Aurtengo gaia "persona orok askatasunez ibiltzeko eta Estatu baten lurraldean bizilekua aukeratzeko duen eskubidea" da.



# ZERBITZUAK



## Hezkuntza

### Koordinazioa

Teknologia berriak erabakigarriak izan dira etengabe koordinatuta egoteko, bai familiekin eta baita profesionalen artean ere.

Komunikazio naturala eta jarraitua eduki ahal izan da hainbat mailatan bideodeien bitartez Hilabete hauetan, klaustro, talde-bilera eta halako koordinazio-egiturei ere eutsi ahal izan diegu, halaber.

### Prestakuntza

Une honetan, teknologiak garrantzi are eta handiagoa hartu du gure bizitzan eta, ondorioz, profesionalentzat hezkuntzaren esparruan lanabes teknologikoak erabiltzeko bi prestakuntza-saio egin dira online. Lehenengo saioa ikasleentzako material interaktiboak sortzeko aplikazioei buruzkoa da, eta bigarrena Power Point-en aurkezpen interaktiboak sortzeari buruzkoa. Azken honetan Ane Eizmendi izan da prestatzailea, gure gela bateko profesionala.

## URDINDUZ ETXETIK!

Apirilaren 2an, Autismoaren Nazioarteko Egunean, hainbat profesionalak URDINDUZ ekimenarekin bat egin zuten etxetik.





## Ikasturte berria

Hirugarren hiruhileko osoan etengabe koordinatuta egon ginen ikastetxeetako zuzendaritzekin, 2020/2021eko ikasturterako protokoloak lantzea helburu.

Ikasturte-hasiera berria ikusmiran dela, ikasgela bakoitzak esku hartzeko berariazko protokolo bat du, bere ingurunera egokitua eta ikastetxeko protokolo orokorrean oinarritua. Bestalde, esku hartzeko barne-protokolo bat landu da profesionalentzat, eta beste bat familientzat.

2020/2021 ikasturtea hasteko, gure egitura eta eguneroko lana adostutako protokoloetara egokitu behar ditugu. Hori dela eta, sarrera eta irteera ordutegiak berregituratu behar ditugu, hainbat eremuren erabilera egokitu, hala nola jantokia, jolaslekua, ikastetxeko eremu komunak, etab. Bilera telematikoen bidez, gelako profesionalekin koordinazio zuzena izaten jarraitzen dugu, eta modu sistematikoan koordinatzen gara ikastetxeetako zuzendaritzekin, irizpideak bateratzeko eta lan-ildo berean joateko.

Profesional guztien ahalegin orokorra egoera berri hauetara egokitzeko gaitasunean islatzen da. Ikasturte hasierako balantzea, oro har, positiboa izan da.

---

**Irailean lehen  
hezkuntzako gela  
egonkor berri bat ireki  
dugu, hogeigarrena,  
Donostiako Herri  
Ametsa Ikastolan.**



Herri Ametsa Ikastolako gela egonkorra.





## Eguneko arreta

Martxoaren 14tik, hau da, alarma-egoera onetsi zenetik, eguneko arretako zerbitzuko hezitzaile guztiek beren lanaldiaren ordutegia aldatu zuten gure etxebizitzetan bizi diren guztiei laguntza eman ahal izateko. Azpimarratu behar da zein erraza izan zen aldaketa hori egitea, zerbitzua osatzen duten hezitzaile guztiek, salbuespenik gabe, azaldutako prestasunari esker.

**Itxialdian, zerbitzuko hezitzaileek gurekin bizi diren pertsoneri lagundu diete etxebizitzetan.**

Pandemiaren lehen fasean, entitatearen etxebizitzetan bizi direnez gain, guk laguntza ematen diegun eta familiaren etxean bizi direnenganaino heltzeko erronka zailari aurre egin behar izan genion.

*Salbuespen  
egoera honetan, zuen  
erantzuna sekulakoa izan da.  
Ez naiz harritzen zuen ibilbidea  
halakoxea baita, baina egindako  
lana eta erakutsitako inplikazioa  
nabarmentzeko da.*

*Zuetako askok senideak dituzue  
zuen kargu eta horietako batzuk  
zaurgarritasun egoeran daude. Beldurrak  
eta ziurgabetasunak egon arren, lan  
egiten ari zarete profesionaltasunarekin,  
motibazioarekin eta maitasunarekin.*

*Nire txaloa zuentzat da.*

*Zuen lankidea*

Horretarako, hala eskatzen zuten familien eskuetan jarri zen Osasun Ministerioak «ibilaldi terapeutikoak» deitu zituzten horiek egin ahal izateko laguntza lortzeko aukera.

Asteak igaro ahala, eta entitatearen baliabideak, eguneko arretako zentroak eta unitateak erabiltzea ezinezkoa zenez, eztabaida abian jarri zen, arauen zurruntasuna nola konpondu genezakeen ikusteko, eguneko zentro eta unitateak bi helburu lortzea ahalbidetuko ziguten tresna modura erabiltzeko: alde batetik, AENa dutenentzat behar-beharrezko errutina eta jarduera berreskuratzeko eta, beste alde batetik, familien lasaitasun fisiko eta emozionalean laguntzeko.

---

**Finkatutako dinamiketan hamaika aldaketa egin behar izan dira, eta lortu ere lortu da haiek arrakastaz txertatzea, familien eta profesionalen ahalegin erkideari esker.**

- *7/2015 Foru Dekretua, martxoaren 24koa, aldatu izanak ahalbidetu du formula berri bat ezartzea, hau da, esleitutako plaza gorde ahal izatea, pertsona eguneko zerbitzura etorri gabe zenbat denbora egoten den kontuan hartu gabe.*

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta GAUTENaren arteko jarduketara partekatu eta arduratsuaren bitartez, formula bat eratu zen, eguneko arretako zentro eta unitateak berriro irekitzea ahalbidetu zuena familiarekin etxean bizi eta premiaz esku

hartzea eskatzen zuten kasuetarako. Egitura- eta programa-egokitzapenak egin behar izan ziren berrirekitze horretarako: burbuila-taldeak eratu, COVID-19 protokoloak abian jarri, kontingentzia-planak onetsi, eta abar.



# ZERBITZUAK



## Eguneko arreta

Murrizketak poliki-poliki samurtu izanak ahalbidetu du familiarekin etxean bizi diren pertsona gehiago etortzea zerbitzura.

Hala ere, 2020. urtea amaitzean, zerbitzuaren errealitatea da hezitzaile-talde bat etxeetan laguntza ematen ari dela pandemiaren hastapenetik, eta beste lankide-talde bat zentroetan eta unitateetan laguntza ematen ari zaiela beren familiarekin bizi direnei.

121  
artatutako  
pertsona



### COVID-19aren eragina

Aldi horretan guztian, nola laguntza ematen diegunen artean hala profesionalen artean zenbait koronabirus-kasu izan dira.

Egoera kezkarriak eta larriak ere bizi izan dira, baina, zorionez, onik amaitu dira.



Eguneko zentroetako ekintza desberdinak.

## ESKERRIK ASKO GUZTIOI

### Profesionalak

Eguneko arreta-zerbitzua osatzen duten guzti-guztien eta haietako bakoitzaren sormen agortezinari, malgutasun handiari, konpromisoari eta ausardia profesional eta pertsonalari esker soilik ibili ahal izan gara 2020ak ekarri digun bide gorabeheratsu horretan.

### Laguntza ematen diegun pertsonak

Azkenik, laguntza ematen diegun guztiei aitortu behar diegu egokitzeke egin duten ahalegin etengabea, alarma-egoera ezarri zenez geroztik hain bikainki egiten ari direna.

---

**Berriz ere, erakusten dute behar besteko laguntzarekin guztia dela errazagoa.**

### Familiak

Era berean goratu egin behar da familiek, salbuespenik gabe, emandako laguntza, egoera berrietara moldatzen eta urte osoan bidaide izan ditugun arauzko eskakizun etengabe eta aldorren betebeharrak egokitzen jakin baitute.



Donostiako Artolamendi eguneko zentroko talde bat.



# ZERBITZUAK



## Etxebizitza

Ezbairik gabe, pandemiak gure zerbitzuan eragin duen egoera erabakigarria izan da, eta zerbitzuaren jarduera eta antolamendu osoa baldintzatu du, baina ez soilik pairatu behar izan diren mugapenei eta arriskuei buruz, baizik eta baita antolaera berriak pentsatu eta asmatu behar izan diren funtzionatzeko modu logikoak eta

ohikoak zirela ziruditenak beste ikuskera batekin begiratu beharri buruz ere. Horri guztiorri gehitu behar zaio benetako ikasketa, baina baita zailtasun eta konplexutasun galanta ere izan dena: osasun-egoera bat kudeatu behar izatea, ez baikenuen eskarmenturik material eta protokolo sanitarioen maneian.

- *Txalogarria da zerbitzuan laguntzen ditugun pertsonen egoera ezezagun batera moldatzeko izan duten gaitasuna: ordutegi aldaketak, jarduera berriak, mugikortasun mugatua, familiekin harreman zuzenik ezin izatea etab.*

Lehenik, edozeren gainera, gure zerbitzuko pertsonengandik jaso dugun ikaskizuna azpimarratu behar da. Txalogarria izan da egoera ezezagun batera moldatzeko izan duten gaitasuna: ordutegi aldaketak, jarduera berriak, mugikortasun mugatua, familiekin harreman zuzenik ezin izatea... Pandemiagoerara moldatzeko gaitasun aparta dutela erakutsi digute.



Urietako etxebizitzak itxialdian.

## Profesionalak

Moldakortasun- eta malgutasun-ildo horri berari eutsiz, profesionalek egin duten lana aintzatetsi nahi dugu, beren ordutegiak eta oporraldiak aldatu egin baitzaizkie.

Etxetik kanpoko kontaktuak ahalik gehien murriztea helburu zela, eguneko zentroetako profesionalak etxebizitzetara joan dira, eta haietan egin dute beren jarduketa.

Aste Santuko oporretan, etxebizitzetako profesional guztiek lanean jarraitu zuten, eta zegokien oporraldia urteko beste aldi baterako utzi zuten.

---

**Profesionalek egindako lana aintzatetsi nahi dugu, besteak beste, ordutegiak eta oporraldiak aldatu baitzaizkie.**

78  
artatutako  
pertsona



## Familiak

Azpimarratu behar da, halaber, familien laguntasuna, beren senidearekin egon ezina ekarri duen egoera honi aurre egin behar izan zaionean. Oso neurri zorrotzak hartu dira osasuna zaindu eta kutsatzeak eragotzi ahal izateko, eta urte osoan egoera horri eutsi beharrean egon gara, abuztuan eta Gabonetan izan ezik.

Senideak harremanetan egon zitezten, ordezko zenbait komunikazio-metodo erabili dira; adibidez, telefonozko harremanak ugaritu dira, eta tabletak eta mugikorrak erabili dira familiarekin kontaktu bisuala eduki ahal izateko.




## Etxebizitza

### Konfinamendua

Bestalde, etxebizitzetako jardueren antolamenduan ere izan dira aldaketak. Etxebizitzetan dugun egitura oso mesedegarria izan zaigu, konfinamendua modu egokian eratzeko modua eman baitugu, eta lorategietako eta kanpoaldeko eremuak erabili ditugu aire libreko jarduerak egiteko.

Baina kontuan izan behar dugu Zarategiko bizilekuan egoera bestelakoa izan dela, bizilagun-erkidego batean dauden bi etxebizitza baitira. Hor oraindik gehiago egokitu egin behar izan dira jarduerak; kirol-jarduerak, adibidez, etxe barnean egin ahal izan dira proiektoreak erabiliz.



Obra Social "la Caixa"-k emandako tabletak.

**Obra Social "la Caixa"-k sei tableta eman ditu etxebizitzetarako; oso baliagarriak zaizkie familiarekin komunikatzeko, eta itxialdi-egunak jasangarriagoak izan daitezten.**

### Jarraipena

Gure jarraipen-sistemari dagokionez, etxebizitza bakoitzeko lantaldeak koordinatzeko, bide telematikoak ere erantsi dugu. Itxialdiko asteetan jarraipena areagotu egin zen: astero

bilerak egiten ziren lantalde mediko, mediku psikiatra eta psikologoaren eta etxebizitzako eta eguneko zentroetako koordinatzaileen artean, baita zerbitzuaren arduradunekin ere.



Aipamen berezia merezi du itxialdian sortu zen

### **GAUTENA ZUZENEAN** ekimen

eder eta dibertigarriak. Ekimen horretan etxeke bideoak egin behar dira, albistegi-formatuan, etxekobizilagun guztiek eginda, nork bere eguneroko bizimoduko

gorabeherak azalduz. Etxebizitzako bizilagun horiek desafio egiten diete beste batzuei, ekimenean parte har dezaten. Zalantzarik gabe, oso modu argigarria izan da gure etxeetako ateak irekitzeko aspalditik harremana galdua genuen kanpoalde horretara.



### COVID-19aren eragina

Amaituko dugu esanez COVID-19aren intzidentzia arina izan dela etxebizitzetan, eta kutsatu direnek ondo eboluzionatu dutela eta ondorioz gabe daudela.



Azkorte



Berio 2



Zarategi



Txara



Azkorte



Berio 1



## Familiantzako Laguntza eta Elkarte Ekintzak

### Komunikazioa

2020an, familiekin, profesionalekin eta zentroekin dugun komunikazioa indartzea zen Familiei Laguntzako Zerbitzuan genuen asmoa, besteak beste. Urtearen hastapenean sortu zen GAUTENAKIDE informazio-aldizkaria: entitatearen bazkideentzako buletin bat, astero helarazten zaiena posta elektronikoz eta Whatsappez.

Aldi berean, GAUTENAGUNE sortu dugu, hilerokoa, entitatearen bazkide ez direnei posta elektronikoz bidaltzen zaiena. Urtearen amaieran, abian jarri genuen GAUTENAGILE, GAUTENAKo langileentzako buletina.

---

**COVID-19aren krisiagatik konfinatuta eman genituen asteetan, lan-ildo honen garrantzia areagotu egin zen.**

Buletin hauek izan dira familiekin eta profesionalekin komunikatzeko erabili dugun bide nagusia; kolektiboari eragiten zioten aldaketen berri eman diegu, eta eguneroko bizimodua ahalik modu onenean jasateko baliabideak eta gidalerroak eskaini ditugu.



GAUTENAKo familia bat ETB1-erako erreportaje bat grabatzen.

Martxoaren 14an alarma-egoera ezarri zenetik, AENA dutenek ibilaldi terapeutikoak egitera irteteko eskubidea izan behar zutela aldarrikatu zuten autismoaren elkarte-mugimenduek. GAUTENAK bat egin zuen aldarrikapen horrekin, eta, azkenean, martxoaren 20an, aldarrikapena onartu egin zuten.



Oihana Egañaren kartela.

Harrezkero, gure lana izan da hedabideen kolaborazio-eskaerak bideratzea gai hori eta beste batzuk

lantzeko. Hedabide horiek gerora balio izan digute herritarrei adeitasuna eta errespetua eskatzeko, onartuta dagoen eskubide bat baliatzera irten garenean.

## Sentsibilizazioa

Pandemiak sentsibilizazioaren arloan ere izan du bere eragina. Sentsibilizazio horren aktibo nagusia URDINDUZ dugu, autismoaren elkartasun-martxa.

Urte hasieran ekin genion hura antolatzeari, baina, egoera bihurritu ahala, bertan behera utzi behar izan genion. Hala eta guztiz, etxean bada ere, apirilaren 2an Autismoaren Kontzientziazioaren Nazioarteko Eguna ospatu genuen. Familia asko eta asko jantzi ziren urdinez, eta beren argazkia partekatu zuten gurekin. Guztiak agertzen dira entitatearen sare sozialetan partekatu den eskerrak emateko bideo batean, haien guztien kemenaren erakusgarri izan dadin.





## Familiantzako Laguntza eta Elkarte Ekintzak

### Programak

#### GIZARTEAN

Bestalde, trebetasun sozialetan entrenatzeko GIZARTEAN programak ere izan ditu aldaketak. Martxoaren erdialdetik ekainean ikasturtea amaitu arte, psikologoarekin egindako talde-kako saioak telematikoak izan dira. Urrira arte ez dira abian jarri berriro aurrez aurreko saioak, nola Donostian hala Zumarragan eta Eibarren. Parte-hartzaileen konfinamendu-kasu puntual batzuetan, haiek telematikoki bat egin ahal izan dute taldearekin.

#### LANALDE

Esan behar da, egoera horren aldakorra izanda ere, 2020an GAUTENAKo lau kidek LanTEA Gureak-en programan parte hartu dutela. Lankidetzeta estua dugu haiekin.

Prestakuntza-programa bat da, eta helburu nagusia da norbanako bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako lan-aukerak eskaintzea eta AENA dutenen laneratzea erraztea.

Urtearen erdialdera, bilera telematikoak egiten ohituta, bazkide diren familien esku inprimaki bat jarri da, horren bidez Familiari Laguntzeko Zerbitzuko profesionalekin aldez aurreko hitzordua eskatzeko, hainbat gairi buruzko kontsultak egiteko; esate baterako, desgaitasunaren eta mendekotasunaren balorazioaz, laguntza ekonomikoez, entitatearen berezko jardueraz, eta abar. Hartara, lortu nahi da ziurgabetasuneko garai batean behar beste denbora erabiltzea gorabehera partikularrei erantzuteko, eta familia bakoitzaren beharrezanetan arreta handiagoa ipintzeko.

Urte amaieran, entitatearen loteriaren salmenta dinamizatu dugu. GAUTENAKo zenbait familiak daramatzaten establezimendu batzuk izan dira lankide eta, zorte onekoak gu, gure zenbakiak pedrea saria lortu du Gabonetako Loteriaren zozketan.





## Aisialdia eta Denbora Librea

Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak, ezinbestez, bertan behera geratu dira konfinamenduan.

Itxialdiaren neurriak arintzen ziren heinean, aisialdi programari ekin diogu berriro burbuila taldeen bidez eta beharrezko osasun-neurri guztiekin. Berrikuntza gisa, aipatu behar da Aieteko egoitzaren ondoan dagoen Jesuitak Ikastetxean espazio bat alokatu dugula eta bertan gaztelu puzgarri bat jarri dela aisialdiko jarduerak egiteko.



**Eskolaz kanpoko jarduerak**

81

Partaide

32

Begirale

**Udarako aisialdi programa**

93

Partaide

67

Begirale

Hala, uztailean 47 adingabek parte hartu zuten udaleku irekietan talde murriztuetan; eta abuztuan 46 haur eta gazte joan ziren udalekuetara. Oporretako hilabete horretan zazpi eguneko bost txanda antolatu ziren Zarategiko eta Urnietako etxebizitzetan.

Behin 2020-2021 ikasturte berria hasita, aste barruko eskolaz kanpoko jarduerak ezin izan dira berriro martxan jarri, asteburuetako aisialdiko taldeak, ordea, abian dira.






# 2020KO EKINTZAK

Urtarrila

## Autismoari buruzko Hitzaldi-Zikloa

Hiru ponentziak eratu zuten GAUTENAK urtero antolatzen duen autismoari buruzko hitzaldi-zikloa, zeina Donostian egin zen, Kursaal auditoriumean.



Autismori buruzko 2020ko hitzaldi-zikloaren kartel ofiziala.

**Autismoari buruzko 2020ko hitzaldi-zikloak 385 entzule bildu zituen guztira hiru saioetan.**

Sektoreko zenbait profesionalek AEN-Autismoaren Espektroko Nahasmenarekin zerikusia duten gaiak jorratu zituzten hiru egunez, nahasmen horren inguruko eza-guera handitu eta autismoaren errealitateari agerikotasuna ematea helburu zela.



Oihana Egañaren kartela

Otsaila

## Asperger Sindromearen Nazioarteko Eguna

Egun horren inguruan, iazko Zinemaldian Publikoaren Saria jaso zuen Especiales filmaren aurrestreinaldira joan ahal izan genuen. Ohikoa denez, lagun-talde bat bildu zen, lagunartean afaltzeko, adiskidetasunaren alde topa egiteko eta tarte atsegin bat pasatzeko.

## Martxoa

### Lilatoneko Euro Solidarioa, GAUTENaren alde

Lilaton emakumeen herri-lasterketako EURO SOLIDARIOaren irabazkinak GAUTENari eman zizkioten. Guztira, 3.079 eskumuturreko solidario saldu ziren.

**Guztira 3.079 eskumuturreko solidario saldu ziren.**

Martxoaren 1ean egin zen lasterketa, Emakumearen Nazioarteko Egunaren inguruan, eta elkarteko zenbait profesionalak eta senideak parte hartu zuten. Egun batzuk lehenago, denok batera entrenamendu bat antolatu genuen hiriaren erdian, eta El

Diario Vascok haren berri eman zuen. Bestalde, lasterketaren antolatzaileek gonbidapen batzuk eman zizkiguten, eta parte-hartzaileen artean zozketatu genituen.

GAUTENako langileak eta familiak Donostian, Bulebarreko kioskoan



### 'Kirola Elkarrekin' Legazpian

GAUTENAK ikasturtean zehar antolatzen duen igeriketajarduera batera etortzen den gazte-talde batek parte hartu zuen Atzegik Legazpin antolatzen duen Kirola Elkarrekin igeriketa-lehiaketan.

Kirola egitea funtsezkoa da pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

**Aupa zuek!**



Kirolari taldea Legazpian.





# 2020KO EKINTZAK

## Piktogramak Azkoitiko zebra-bideetan



Udaleko, Marea Urdineko eta GAUTENAKo ordezkariak Azkoitian.

Azkoitia izan zen oinezkoen pasabideetan piktogramak ezarri zituen lehen euskal

udala, bai eta euskaraz ipini zituena ere. Piktogramek ingurumena ulertzen lagundu egiten diete autismoa dutenei eta, bide batez, neurri horrek AENA dutenen autonomia sustatzen du, eta herria leku erosoagoa bihurtu.

Horretarako, Azkoitiko Udalak hitzarmen bat sinatu zuen TEAVIAL Andaluziako proiektuarekin, hark baitauka

erregistratuta piktogramekiko seinaleztatzea. Handik hilabete batzuetara, elkartearen ordezkariak etorri ziren Azkoitira.

**Azkoitia zebra-bideetan piktogramak jarri dituen lehen euskal udalerrria izan da.**

## La Familia film laburraren estreinaldia

Itxialdian egun gutxi generamatzala estreinatu genuen lehen aldiz irekian Youtubeko gure kanalean La Familia umorezko film laburra, GAUTENAKo AteneASP antzerki-taldeak 2019an maitasun handiz grabatua. Mikel Sagarzazu film labur horretako aktoreetako batek sarrerako bideon zioen bezala, «umore pixka bat eskaini nahi izan genuen,

hori ere osasuna da-eta», kontuan hartuta COVID-19aren pandemia zela-eta une latzak pairatzen ari ginela. Handik aste batzuetara, Donostia Kulturak bere Antzokia Etxean programazioan ezarri zuen filma.

Urtearen hondarrean, film labur horrek saria jaso zuen Almeriako Gallo Pedro Film Laburren VII. Jaialdi

**«La Familia» film laburrak 3.000 ikustaldi daramatza Youtubeko gure kanalean.**



Inklusiboan, interpretazio hoberenaren kategorian. Jaialdi horretara desgaitasuna gizarteratzeari buruzko ikus-entzunezkoak aurkezten dira.



## Autismoaren Nazioarteko Eguna

Autismoaren  
Kontzientziazioaren  
Nazioarteko Eguna etxeetan eta  
sarean ospatu zen. GAUTENAKo familia  
eta profesional askok eta askok bidali  
zituzten argazkiak nor bere etxean urdinez  
jantzita; Agin Laburu bertsolariak bizi  
genuen aparteko egoerari buruzko bertsoa  
bota zuen; Oihana Egañak ilustrazio bat  
egin zuen, autismoa dutenentzat eta haien  
familientzat errespetua eskatuz; hainbat  
elkartasun-adierazpen jaso genituen;  
argazki-muntaketak eta bideoak landu  
zituzten gure ikasgeletan; zenbait eraikin  
urdinez argiztatu zituzten eta probintzia  
osoko balkoi eta leihoak kolore horrekin  
jantzi ziren, elkartasuna  
adieraziz.





# 2020KO EKINTZAK

## Maiatza

### Konfinamendu-neurrien arintzeri aurre egiteko saioak

Hainbat aste itxita eman ondoren, maiatzean hasi zen mailaka konfinamendua arintzeko prozesua.

Errealitatea aldatuta zegoen, eta guztiontzat ezezaguna zen panorama baten aurrean geunden, eta AENA dute-nentzat kudeatzen zaila izan zitekeen hori.

Horregatik, bi laguntza-gida landu genituen, familiei orientabideak eskainiz; eta saio telematikoko banatan sakondu genituen haiek.

Lehenaren izenburua Nola egin aurre konfinamendu-neurrien arintzeari? zen; eta bigarrenarena Gure semeak/alabak ez du etxetik irten nahi.



## Uztaila-abuztua

### Ezohiko uda GAUTENAN

Ezohikoa izan zen 2020ko uda. Hala ere, pandemiak ez zituen galarazi udalekuak. Hori bai, aldaketa nabarmenak izan zituen udaldietako ohiko programak, osasun-prebentzioko neurriak betetzeko; esaterako, aldaketak egon ziren parte-

hartzaileen kopuruan eta egonaldien iraupenean, ordu-tegietan, lekuetan etab.

Uztailan 45 lagunek parte hartu zuten GAUTENAK antolatutako udaleku irekietan. Bestalde, abuztuko udalekuen egonaldia zazpi egunekoa izan zen, eta Urnietan eta Donostian egin ziren. Guztira 48 parte-

hartzaile izan ziren abuztuan, denak beren familiekin bizi direnak.

Abuztuan etxebizitzak zabalik egon ziren, hiru unitate izan ezik; eta, hirugarren urtez jarraian, oporretako hilabete horretan eguneko arretaz-zerbitzua eskaini zen, eta 26 helduk erabili zuten.



## Urria

### Piktogramak margotu ziren Zumaian

Azkoitiko udalerriaren ondoren, Zumaiko herriak egin zuen bat oinezkoen pasabideetan piktogramak ezartzeko eki-menarekin, AENA dutenen eta beste kolektibo batzuen autonomiari laguntzeko. GAUTENAKo ordezkariak eta familiak bertan ziren piktogramak marraztu

zirenean, beren babesa adierazteko eta pertsona guztien irisgarritasun kognitiborako eskubidearen aldeko ekintza hori eskertzeko.

Ekimen horrek lagundu egiten du, era berean, hizpidera ekartzen gure ingurunea ulertzeko dauden askotariko



Zumaiako zebra-bidea piktogramekin.

moduak, eta autismoaren espektroko nahasmena dutenak agerian ipintzen.

### GAUTENAK Euskaraldian parte hartu du



Helburutzat erabilpena duen jarduera bat da Euskaraldia. 2020an GAUTENAK parte hartu zuen, Ariguneen bidez. Euskaraz egin litekeen guneak dira horiek; eta bi eratakoak izan

ziren: «barne-ariguneak» eta «kanpo-ariguneak». Elkarrekin lan egin ohi duten profesionalak osatzen dituzte. Bigarrenak, entitatearen eta herritarren arteko hartu-emaneko guneak dira.



Gela egokorretako ekintzen argazkiak.

**51 ahobizi**

**8 'barne-arigune'**

**Belarriprest bat**

**3 'kanpo-arigune'**





## 2020KO EKINTZAK

### Bazkideen Batzar Orokorra



Bazkideen Batzar Orokorra.

Pandemia zela eta, bazkideen Batzar Orokorra ohi baino beranduago egin zen, aurrez aurre, kutsatzeak eragozteko segurtasun-neurri guztiak beteta.

Besteak beste, elkartearen Kudeaketa Plana bete izana eta

2019ko finantza-egoera onetsi ziren. 2020ko txostenaren inguruan, haren eduki nagusiak eta aurrekontuak aurkeztu zituzten, eta Zuzendaritza Batzordearen osaera berretsi zen.

### Hasi dira Aieteko obrak

Azkarate Enea da GAUTENAK izan duen lehen egoitza eta bakarra, 1978an Donostiako Udalak hura utzi zigunetik. Aspaldiko eraikin bat da, eta eraberritze-lan batzuk behar zituen gaur egungo beharrezan erantzun txukuna eman ahal izateko.

Teilatua konpontzeari ekin zitzaion lehenik; gero, azken solairua, Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzurako erabiltzen dena, eraberritzeko. Lanek irauten duten bitartean, zerbitzu horretako profe-



Azkarate-Enea eraikina obretan.

sionalen lantaldea Donostiako Igara auzoan ariko da.

Maile pribatu baten laguntza ekonomikoari esker eta Gipuzkoako Foru Aldunditik, haren Gizarte Zerbitzuetako Zentroetarako Inbertsio

Planerako Diru-Laguntzen Deialdiaren bitartez, jasotako dirulaguntzari esker ari gara berritze-lanak egiten. ONCE fundazioak ere eman dio laguntza proiektuari, Autismo España Konfederazioaren bidez.



1978an El Diario Vascon argitaratutako argazkiak.

## Azaroa

### Eusko Jaurlaritzako ordezkarien bisita



Eusko Jaurlaritzako, GAUTENAKo eta Ondarreta Ikastetxeko ordezkariak.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zenbait ordezkariak, Jokin Bildarratz sailburua buru, gure gela egonkorak bisitatu zituzten Ondarreta eta La Salle Berrozpe ikastetxeetan, Andoaingoak biak, GAUTENAREN hezkuntza-eredua lehen eskutik ezagutzeko.



Ondarreta Ikastetxeko gela.

### Furgoneta berria ONCE Fundazioari esker

Furgoneta berria erosi du GAUTENAK, ONCE fundazioaren 2020ko proiektu-deialditik jasotako dirulaguntzari esker.

Eragin zuzena du horrek elkartean artatzen ditugunen bizi-kalitatea hobetzeko, haiek zentro batetik bestera eramatea eta komunitate-



Egokitutako ibilgailu berria.

baliabideak eskuratzea errazagoa baita.

### Desgaitasun intelektuala dutenentzako oposizioak



Hautagaiak azterketara sartu aurretik.

Azaroaren 20an egin zen desgaitasun intelektuala dutenek Gipuzkoako Foru Aldundian hiru lanpostu betetzeko antolatutako LEP-Lan Eskaintza Publikoko azterketa.

150 laguni deitu zitzairen Irungo Ficoban azterketa egin zezaten. Deialdi historiko honek atek irekitzen dizkio etorkizuneko lan arloko ekimen berriei.

Osasun-neurri egokiekin antolatatu zen hitzordua, izangaiek azterketa segurtasunez egin ahal zezaten; GAUTENAKo zenbait kide zeuden haien artean.





# 2020KO EKINTZAK

## Abendua

### Loteriaren salmenta

Ohi denez, GAUTENAK bere loteria saldu zuen 5 eurotan, eta euro bat dohaintza izaten da. Banaketarako, guztiz funtsezkoa izan zen zenbait familiaren saltokien lankidetzak.

Abenduaren 22ko zozketan gure zenbakiari saria suertatu

zitzaien, eta horrek esan nahi zuen jokaturako euro bakoitzeko 5 euroko saria jasotzen zela. Saria kobratzeko ere funtsez-koak izan ziren loteria saldu zuten saltokiak eta horregatik beraien lana eskertu nahi izan genuen opari batekin.

**Loteriako 3.800 txartel saldu ziren.**



Mabel Moda, Lasarte-Oria.



Garin paper-denda, Donostia.



Textiles Kontxi, Donostia.



Eder Lentzeria, Legazpia.



La Tienda del Bordado, Donostia.



Josele harategia, Pasai Antxo.



## Gabonetako postalen lehiaketa

Ikasgela, eguneko zentro eta etxebizitzetako gazteek eta helduek beren proposamenak helarazi zituzten entitateak antolatutako Postalen Lehiaketarako; eta zerbitzu horietako langileek bozketaz aukeratu zuten irabazlea. 150 profesionalak baino gehiagok bozkatu zuten gustukoena zuten postalaren alde.

### Urrietako Azkorte 18ko etxebizitzak aurkeztutako postala izan zen irabazlea.



Azkorte 18 etxebizitzako bizikideak saria jasotzen.



Lehiaketako postal irabazlea.

## Elgoibarko Santa Klara komentua utzi digute

Urtearen hondarrean, GAUTENAK eta Elgoibarko Udalak Santa Klara komentua lagapen-hitzarmena sinatu zuten, hura erabili ahal izateko.

Lagapenak hauek biltzen ditu: zortzi gela, sukalde-eremu bat eta komentuko kapera; guztira, 560 m<sup>2</sup>. Eguneko jarduerak egiteko eta asteburuetako

lasaialdietarako erabiliko dugu tokia, familiei laguntzeko zerbitzuaren barnean dauden programetarako, aisialdiko jardueretarako ikasturtean zehar, eta oportretan aldi bateko egonaldiak egiteko.

### Zerbitzuak deszentralizatzeko aurrerapauso handia da.



Hitzarmenaren sinaduraren eguna.



# URTEKO KONTUAK

## 2020KO ABENDUAREN 31n ITXITAKO EKITALDIA

### Emitzen kontua

	2020	2019
1. Berezko ihardueraren erakundearen sarrerak	10.353.656	10.341.622
2. Laguntzagatiko gastuak eta bestelakoak		- 3.000
3. Jardueraren bestelako sarrerak	3.809	24.551
4. Pertsonal-gastuak	- 8.042.155	- 7.726.254
5. Ustiapeneko bestelako gastuak	- 2.323.324	- 2.632.271
6. Ibilgetuaren amortizazioa	-380.412	- 349.658
7. Ekitaldiko emaitzari egotzitako kapital dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	372.688	341.244
8. Ibilgetuaren narriadura eta besterentzearen emaitza		
9. Bestelako emaitzak	35.530	12.761
<b>A) JARDUERAREN EMAITZA</b>	<b>19.792</b>	<b>8.995</b>
10. Sarrera finantzarioak		
11. Gastu finantzarioak	- 6.191	- 6.035
<b>B) ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA</b>	<b>- 6.191</b>	<b>- 6.035</b>
<b>C) ZERGA AURREKO EMAITZA</b>	<b>13.601</b>	<b>2.960</b>
<b>EKITALDIKO SOBERAKINA</b>	<b>13.601</b>	<b>2.960</b>

## Egoeraren balantzea

<b>AKTIBOA</b>	<b>2020</b>	<b>2019</b>
<b>A) AKTIBO EZ-KORRONTEA</b>	4.919.208	5.224.772
I. Ibilgetu ukiezina	1.863.422	2.003.283
III. Ibilgetu materiala	2.948.123	3.117.033
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	107.663	104.456
<b>B) AKTIBO KORRONTEA</b>	2.496.744	1.841.465
III. Erabiltzaileak eta berezko iharduerako zordunak	70.024	83.356
IV. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	1.058.333	578.521
V. Epe laburreko finantza inbertsioak	29.495	
VII. Epe laburreko periodifikatzeak	14.009	7.151
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	1.324.883	1.172.437
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>7.415.952</b>	<b>7.066.237</b>

<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</b>	<b>2020</b>	<b>2019</b>
<b>A) ONDARE GARBIA</b>	5.220.869	5.565.730
A-1) Fondo propioak	310.801	297.200
I. Sorrerako zuzkidura/Fondo sozial	297.200	294.240
IV. Ekitaldiko soberakina	13.601	2.960
A-3) Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	4.910.068	5.268.530
<b>B) PASIBO EZ-KORRONTEA</b>	67.301	68.940
I. Epe luzeko hornidurak	67.301	68.940
<b>C) PASIBO KORRONTEA</b>	2.127.782	1.431.567
II. Epe laburreko hornidurak	18.822	18.822
II. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	1.500.305	1.131.345
II. Epe laburreko periodifikatzeak	608.655	281.400
<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>7.415.952</b>	<b>7.066.237</b>



# FINANTZATZAILEAK

## Administrazioa

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ORAIN  
GIPUZKOA



## Udalak



ARETXABALETAKO  
UDALA



ANDOAINGO  
UDALA



ARRASATEKO  
UDALA



ASTIGARRAGAKO  
UDALA



AZPEITIAKO  
UDALA



BERGARAKO  
UDALA



EIBARKO  
UDALA



ELGOIBARKO  
UDALA



ERRENTERIAKO  
UDALA



ESKORIATZAKO  
UDALA



HERNANIKO  
UDALA



IBARRAKO  
UDALA



IRUNGO  
UDALA



LASARTEKO  
UDALA



LEZOKO  
UDALA



OÑATIKO  
UDALA



ORIOKO  
UDALA



PASAIKO  
UDALA



DONOSTIAKO  
UDALA



TOLOSAKO  
UDALA



URRETXUKO  
UDALA



ZARAUZKO  
UDALA



ZUMAIACO  
UDALA



ZUMARRAGAKO  
UDALA

## Enpresak, fundazioak, kooperatibak



Bexen medical



**SUPER  
AMARA**

**ITZURUN**



San Sebastián



## Emaila partikularrak

Covid-19k eragindako osasun eta gizarte krisiak markatutako urte honetan, emaila partikularren laguntzak gure jarduerari eusten lagundu digu sentsibilizazio, familientzako laguntza zerbitzuko, prestakuntza eta ikerketa arloetan. Gure eskerrik beroenak haiei guztiei.

# 2020



**GAUTENA**

AUKERAK SORTZEN

**GAUTENA**

Gipuzkoako autismo elkartea

**EGOITZA SOZIALA**

Francisco López Alen, 4  
20009 - Donostia-San Sebastián  
Tel: 943 21 53 44 / 717 795 144

info@gautena.org  
[www.gautena.org](http://www.gautena.org)

 Gautena

 @gautenagipuzkoa

 @gautena